

Koiuntura di-da batean

2019ko maiatza

Aurkibidea

1. BPGaren hazkundera
2. Enplegua
3. Enpresen konfiantza
4. Inflazioa
5. Nazioarteko merkataritza
6. NDFren aurreikuspenak

Eranskina

1. EAEko ekonomia %2,2 hazi zen 2019ko lehen hiruhilekoan.

Tasa horrek hamarren batean hobetu du Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzaren aurreikuspena.

2. Landunen kopurua %1,8 handitu zen lehen hiruhilekoan.

Langabezia tasa %10,2an kokatu zen, aurreko datua baino hamarren bat beherago.

3. EAEko enpresek konfiantza daukate beren negozioan.

Hasi berri den hiruhilekoaz duten iritziak nabarmen hobetu dira.

4. Erregaien prezioaren igoerak %1,5era gorarazi du inflazioa.

Halere, KPIa Europako Banku Zentralaren erreferentziaren azpian dago.

5. Nazioarteko merkataritzak indarra galdu zuen 2018ko azken zatian.

Esportazioen moteltzeak batez ere Europari ekarri dio kaltea.

6. NDFk beherantz zuzendu du munduko ekonomien hazkundera.

Erakundeak %3,3ko hazkundera aurreikusi du 2019rako eta %3,6, berriz, 2020rako.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

OGASUN ETA EKONOMIA
SAILA
Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza


DEPARTAMENTO DE HACIENDA
Y ECONOMÍA
Dirección de Economía y Planificación

EAE-KO BPG-AREN AURRERAPENA

EAEko ekonomia %2,2 hazi zen 2019ko lehen hiruhilekoan

BPGaren bilakaera


Urte arteko aldakuntza tasa



Eustatek kontu ekonomikoen aurrerapena, 2019ko lehen hiruhilekoari dagokiona, argitaratu berri du. Zenbatespen horren arabera, EAEko ekonomia %2,2 hazi zen epealdi horretan, hots, 2018ko amaieran baino bi hamarren gutxiago. Beraz, 2018ko hastapenean hasi zen moteltzeko joerari jarraipena eman dio. Kontuen aurrerapenean zenbatetsi den BPGaren gehikuntzak hamarren batean gaintu du Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak epealdi horretarako argitaratu zuen aurreikuspena. Hiruhileko arteko terminoetan, BPGaren gehikuntza tasa %0,6 izan zen, aurreko datua eta Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzaren aurreikuspena baino hamarren bat gehiago.

BPGaren bilakaera


Hiruhileko arteko aldakuntza tasa



Iturria: Eustat.

Enpleguaren bilakaera

Urte arteko aldakuntza tasa




Sektoreen analisiak adierazten du industriak bizitasuna berreskuratu duela aurtengo hasieran, 2018ko amaieran pairatu zuen balio erantsiaren jaitsiera txikiaren ondoren. Aitzitik, gainontzeko sektoreek gehikuntza tasa esanguratsuak eskuratu zituzten, baina 2018ko laugarren hiruhilekokoak baino zertxobait txikiagoak.

Enpleguari dagokionez, kontu ekonomikoen aurrerapenak seinalatzen du lanaldi osoko lanpostu baliokideen kopurua %1,8 handitu dela urte arteko tasan, hots, aurreko bi epealdietan baino bi hamarren gutxiago. Horrek esan nahi du BPGaren moteltzea hasi dela lan merkatura ere iristen. Aipatu den gehikuntza tasak iradokitzen du 2018ko lehen hiruhilekotik gaur arte 17.000 lanpostu inguru sortu direla. Hiruhileko arteko terminoetan, enpleguaren hazkundea %0,3 izan da. Tasa hori aurreko hiruhilekoa baino txikiagoa da.

Enpleguaren bilakaera


Hiruhileko arteko aldakuntza tasa



ENPLEGUAREN BILAKAERA


Landunen kopurua %1,8 handitu zen lehen hiruhilekoan

Landunen kopurua
Urte arteko aldakuntza tasa




Eustatek biztanleria aktiboaz egiten duen inkestak (BJA) zenbatetsi du enplegua %1,8 hazi zela 2019ko lehen hiruhilekoan eta lana duten lagunen kopurua 935.100etara iritsi zela. Beraz, enplegu sorrerak tinko jarraitzen du autonomia erkidego honetan. Landunen gehikuntzak mesedea egin die bi generoei, emakume landunen kopurua urte arteko tasan %1,7 areagotu delako eta gizonena, berriz, %1,9. Aurrekoaren ondorioz, azken urtebetean sortu diren 16.200 enpleguetatik 9.000 gizonek hartu zituzten eta gainontzeko 7.300 inguru emakumeek. Enplegu tasa totala %67,6an kokatu da 16 eta 64 urte arteko biztanlerian, emakumeena %63,2 eta gizonena %72,0 direlarik.

Emakume landunak
Urte arteko aldakuntza tasa




Gizon landunak
Urte arteko aldakuntza tasa



Industriako landunak

Urte arteko aldakuntza tasa




Enplegua sektoreka banatzen denean, agerian gertatzen da industriak behera (%-0,6) egin zuela, baina eraikuntzak (%2,6), zerbitzuek (%2,4) eta lehen arloak (%2,9) hazkunde tasa oso esanguratsuak eskuratu zituztela.

Enpleguaren gorakadak langabezia jaitsarazi zuen berriro. Eustaten kalkuluen arabera, 11.000 langabe gutxiago zeuden, iaz zeudenak baino %9,4 gutxiago. Haietatik, 5.100 emakumeak dira eta 5.900 gizonak. Langabezia tasa %10,2an kokatu zen, aurreko datua baino hamarren bat beherago, baina 2018ko hasieran zegoena baino 1,1 puntu beherago.

Lanpostuen gehikuntzak eta langabeziaren jaitsierak adierazten dute biztanleria aktiboa hazi zela 5.200 pertsonatan (3.100 gizon eta 2.100 emakume gehiago zeuden).


Eraikuntzako landunak

Urte arteko aldakuntza tasa




Zerbitzuetako landunak

Urte arteko aldakuntza tasa




Emakume langabeak

Urte arteko aldakuntza tasa



Gizon langabeak


Urte arteko aldakuntza tasa



ENPRESARIEN KONFIANTZA


Euskal enpresek konfiantza daukate beren negozioan

Enpresarien konfiantza indizea
Euskadi






INEk argitaratzen duen enpresen konfiantza indizeak iradokitzen du EAEko enpresek konfiantza maila esanguratsua daukatela oraindik, ziurgabetasuneko epealdi batzuk igaro ondoren. Izan ere, bigarren hiruhilekoaren indizea 132,0an kokatu da, hots, aurreko hiruhilekoaren datua baino bi hamarren bakarrik beherago, iritziak egonkortzen ari direla seinalatuz. Hala eta guztiz ere, indizearen osagai bakoitzak portaera ezberdina erakutsi du, zeren eta aurreko hiruhilekoaren egoera negatibo samarra (-0,3) izan zela uste den bitartean, hasi berria den hiruhilekoari buruzko oraingo igurikimenak (6,1) aurreko datuarenak baino nabarmen baikorragoak direlako.

Aurreko hiruhilekoaz duten iritzia
Euskadi




Hasi berri den hiruhilekoaz duten iritzia
Euskadi



Enpresarien konfiantza indizea
 Espainia

Aurreko hiruhilekoaz duten iritzia
 Espainia


EAEko enpresek eman dituzten erantzunak eta Estatuko gainontzeko erkidegoetan jasotakoak antzekoak dira, hala aurreko hiruhilekoaz nola hasi berri den hiruhilekoaz. Hala ere, Estatuan hobekuntza txiki bat lortu da aurreko epealdiaren emaitzaren aldean. Autonomia erkidegoen artean, bai-kortasun handiena Gaztela-Mantxan dago, batez bestekoaren hamar puntu goragoko emaitza lortuta. Aitzitik, ezkortasuna biziagoa da Kanarietan, batez bestekoa baino ia hamar puntu beherago baitago.

Hasi berri den hiruhilekoaz duten iritzia
 Espainia

Enpresarien konfiantza indizea

	2018-T2	2018-T3	2018-T4	2019-T1	2019-T2
ESPAÑA	135,5	136,2	133,9	132,5	132,9
Andaluzia	135,0	136,5	132,5	131,9	131,7
Aragoi	138,5	138,2	138,2	136,3	134,9
Asturias	137,4	135,8	134,3	133,6	131,7
Balearrak	142,3	142,8	136,1	130,8	137,9
Kanariak	132,1	128,8	129,2	125,4	123,4
Kantabria	141,9	146,0	144,6	139,4	139,5
Gaztela-Mantxa	141,7	147,9	145,0	144,0	142,1
Gaztela eta Leon	139,3	141,4	138,2	136,3	133,7
Katalunia	140,0	140,5	137,7	137,4	137,1
Valentzia	131,6	131,3	128,7	126,9	126,9
Extremadura	137,9	140,2	136,4	132,4	136,8
Galizia	125,5	129,2	130,6	127,1	128,7
Madrid	129,9	127,8	127,0	128,3	130,4
Murtzia	129,6	131,0	126,7	128,6	128,2
Nafarroa	139,2	140,5	134,4	134,9	135,4
Euskadi	136,3	137,4	135,2	132,2	132,0
Errioxa	132,6	131,4	132,9	130,1	130,8

Iturria: INE.

INFLAZIOA

Erregaien prezioaren igoerak %1,5era gorarazi du inflazioa

KPI indize orokorra
Urte arteko aldakuntza tasa




Kontsumoko prezioak %1,5 garestitu ziren martxoan EAEn, aurreko urteko martxoarekin alderatuta. Igoera energiak eragin zuen, bai erregaiak bai argindarrak. Igoera horien ondorioz, KPlaren urte arteko tasa bi hamarren igo zen, azken bost hilekoetako tasarik gorena jasoz. Hala eta guztiz ere, oraingo maila oraindik neurritsutzat jo behar da.


KPlaren banaketa
Urte arteko aldakuntza tasak eta ekarpenak

	2017	2018	2019ko martxoa	Ekarpena
Inflazio osoa (%100)	2,0	1,6	1,5	1,5
Azpiko inflazioa (%81,4)	1,1	0,9	0,8	0,6
- Elikagai landuak (%13,6)	0,0	0,9	0,6	0,1
- Industria ondasunak (%24,8)	0,3	-0,1	0,1	0,0
- Zerbitzuak (%43,0)	1,7	1,5	1,3	0,5
Hondar inflazioa (%18,6)	6,5	4,6	4,6	0,9
- Landu gabeko janariak (%7,6)	3,7	2,9	0,8	0,1
- Energia (%11,0)	8,2	5,9	7,4	0,8

Azpiko inflazioa
Urte arteko aldakuntza tasak



Hondar inflazioa
Urte arteko aldakuntza tasak



Brent motako petrolio upelaren eguneko prezioa

Dolarrak



Gasolinaren eta gasolioaren salneurrien igoerak lotura zuzena dauka petrolioaren garestitzearekin. Izan ere, Brent motako upelaren prezioak 70 dolarren langa gainditu zuen, iazko urritik jaso den baliorik altuena baita. Halaber, erregai horiek gehikuntza areagotu zuten, hidrokarburoen gaineko zerga berriki handitu zelako. Hori dela eta, produktu horiek oraindik Europan baino merkeagoak diren arren, bi lurraldeen arteko aldea murriztu da. Aurreko guztiaren ondorioz, KPIaren martxoko igoeran eragin handiena izan zuten taldeen artean garraioa eta etxebizitza aipatu behar dira. Garraioaren urte arteko tasa %3,4tik %4,5era igo zen. Etxebizitzarena, berriz, aurreko %1,1etik %2,4ra igo zen, argindarraren salneurriak bultzatuta. Aitzitik, inflazioa gutxitzen lagundu zuten taldeen artean, aisialdia eta kultura (%-1,4) nabarmendu zen, Aste Santuaren egutegiak baldintzatuta, zeren eta aurreko jai horiek apirilean ospatu dira osorik, iaz martxoan hasi ziren bitartean.

KPIaren talde nagusiak

Urte arteko aldakuntza tasak. 2019ko martxoa

	Euskadi	Espainia	Eurogunea
INDIZE OROKORRA	1,5	1,3	1,4
Janariak eta alkoholik gabeko edariak	0,6	0,9	1,3
Edari alkoholdunak eta tabakoa	1,3	1,0	3,4
Jantziak eta oinetakoak	0,9	0,9	-0,1
Etxebizitza, ura, argindarra eta beste erregaiak	2,4	2,1	2,9
Altzariak, etxeko tresneria eta mantentzea	0,6	0,6	0,3
Medikuntza	0,1	0,9	0,9
Garraioa	4,5	3,0	2,1
Komunikazioak	1,6	1,4	-2,1
Aisia eta kultura	-1,4	-1,6	0,0
Hezkuntza	0,8	1,0	0,0
Jatetxeak eta hotelak	1,7	1,8	1,6
Bestelako ondasunak eta zerbitzuak	1,8	1,5	1,4


Iturria: INE eta Eurostat.

NAZIOARTEKO MERKATARITZA

Nazioarteko merkataritzak indarra galdu zuen 2018ko azken zatian

Munduko esportazioen bilakaera

Bolumen indizea. 2005T1=100




Munduko Merkataritzaren Antolakundeak (MMA) argitaratu dituen datuen arabera, munduko merkataritzak erritmoa galdu zuen 2018ko azken zatian. Muga zerga berriek, munduko ekonomiaren hazkunde ahulagoak, finantza merkatuen ezegonkortasunak eta herrialde garatu batzuetako moneta baldintza zorrotzagoek merkataritzaren hazkundera lastatu zuten. Zehazkiago adierazita, lehen zenbatespenek %2,0an kokatu dute 2018ko laugarren hiruhilekoan esportazioen bolumenak izan zuen hazkunde tasa, azken bi urteko zenbakirik txikiena baita. Orobat, ahultasun erlatibo hori ez da 2018ra mugatuko, erakunde horrek gutxienez 2019ra ere luzatzen baitu bultzada apalago hori. Kalkulu berrietan oinarrituta, 2019an salgaien munduko merkataritzaren bolumena %2,6 gehituko dela zenbatetsi du, 2018an %3,0 handitu zen bitartean. Hala eta guztiz ere, eta dagoen ziurgabetasun maila altua kontuan hartuta, tasa hori %1,3ra arte jaitsi daiteke, merkataritzako tentsioak areagotzen badira, edo %4,0ra igo tentsio horiek baretzen badira.

SALGAIEN ESPORTAZIOA BOLUMENETAN. Urte arteko aldakuntza tasak


	2017-I	2017-II	2017-III	2017-IV	2018-I	2018-II	2018-III	2018-IV
Guztira	4,4	4,8	5,5	5,5	3,9	3,3	3,6	2,0
Ipar Amerika	3,8	5,4	2,2	4,2	3,3	5,7	5,4	2,1
Hego eta Erdialdeko Amerika	-0,4	1,3	6,8	6,6	3,8	-0,8	0,3	2,8
Europa	3,3	3,3	4,9	4,6	2,7	2,6	1,8	-0,3
Asia	8,3	6,8	7,7	6,4	4,9	3,6	4,4	3,9

Iturria: Munduko Merkataritza Antolakundeak (MMA).

Salgaien esportazioak. Ipar Amerika
Bolumen indizea. 2005T1=100



Salgaien esportazioak. Hego eta Erdi Amerika
Bolumen indizea. 2005T1=100




Merkataritzaren moteltzea nagusiki Europako bilakaera txarraren ondorioa izan da, munduko esportatzaile handiena baita, guztizkoaren %36,9 bereganatuta. Izan ere, Europar Batasuneko esportazioa %0,7 murriztu zen laugarren hiruhilekoan. Europako esportazioen jaitsiera horren arrazoiak honakoak dira: Erresuma Batuan saldutakoaren beherakada, Errusiara eta Turkiara esportatutakoaren moteltzea, azken herrialde horrek atzeraldia eta liraren balio galera pairatzen baititu, Txinaren moteltzea, ekipamendurako produktu europar asko inportatzen baititu, automobilgintzaren zailtasunak ingurumeneko araudi berrietara egokitzeko eta diesela-ren etorkizunaz dagoen ziurgabetasuna, eta euroak 2017an izan zuen balio irabazia, 2018an agian eragina izan zuena. Aurreko guztiak kalte egin zien Europar Batasuneko barruko zein kanpoko salmentei, 2012ko amaieratik izan duten daturik txarra jaso zutelako.

Gainontzeko eremuei dagokienez, moteltzeko joera horren salbuespena Hego eta Erdi Amerika izan zen, Ipar Amerikan eta Asian ere eragina izan zuelako.


EUROPAR BATASUNEN SALGAIEN ESPORTAZIOA BOLUMENEAN. Urte arteko tasak

	2017-I	2017-II	2017-III	2017-IV	2018-I	2018-II	2018-III	2018-IV
Guztira	3,2	3,2	5,0	4,7	2,9	2,9	1,6	-0,7
EB barne	2,6	2,6	4,1	4,8	2,6	2,6	0,6	-0,8
EB kanpo	4,0	4,1	6,3	4,2	3,5	3,3	3,4	-0,5

Salgaien esportazioak. Europa
Bolumen indizea. 2005T1=100



Salgaien esportazioak. Asia
Bolumen indizea. 2005T1=100




NDF-REN AURREIKUSPENAK

NDFk beherantz zuzendu du munduko ekonomiaren hazkundera

Munduko BPGa

Urte arteko aldakuntza tasa




NDFk, apirileko txostenean, munduko BPGaren hazkunderaz prestatu dituen aurreikuspenen azken berrikusketa argitaratu du. Munduko ekonomiaren hedatzeak izan duen ahultzea islatuta geratu da 2019rako eta 2020rako aurreikuspenetan, hurrenez hurren, %3,3an eta %3,6an kokatu baititu. 2019rako datua beherantz zuzendua izan da, ekonomiak 2018ko bigarren seihilekoan pairatu zuen hoztearen ondorioz, merkataritza tentsioengatik eta ekonomia eragileek finantza merkatuetan baikortasun galeragatik. Oraingo aurreikuspenen arabera, munduko hazkundera 2019ko lehen seihilekoan egonkortuko da eta gero finkatuko da.

NDFren aurreikuspen ekonomikoak


	Oraingoak			Aurreko txostenarekiko aldeak	
	2018	2019	2020	2019	2020
Munduko ekonomia	3,6	3,3	3,6	-0,2	0,0
Ekonomia aurreratuak	2,2	1,8	1,7	-0,2	0,0
AEB	2,9	2,3	1,9	-0,2	0,1
Eurogunea	1,8	1,3	1,5	-0,3	-0,2
Alemania	1,5	0,8	1,4	-0,5	-0,2
Frantzia	1,5	1,3	1,4	-0,2	-0,2
Italia	0,9	0,1	0,9	-0,5	0,0
Espainia	2,5	2,1	1,9	-0,1	0,0
Erresuma Batua	1,4	1,2	1,4	-0,3	-0,2
Japonia	0,8	1,0	0,5	-0,1	0,0
Garatzen ari diren herrialdeak	4,5	4,4	4,8	-0,1	-0,1
Txina	6,6	6,3	6,1	0,1	-0,1
India	7,1	7,3	7,5	-0,2	-0,2
Errusia	2,3	1,6	1,7	0,0	0,0
Brasil	1,1	2,1	2,5	-0,4	0,3

Iturria: Nazioarteko Diru Funtza.


Ekonomia aurreratuen BPGa Urte arteko aldakuntza tasa




Garapen bidean dauden ekonomien BPGa Urte arteko aldakuntza tasa



AEBetako BPGa Urte arteko aldakuntza tasa




Erresuma Batuko BPGa Urte arteko aldakuntza tasa



Aurreikusitako gorakada hori garapen bidean dauden ekonomien eskutik iritsiko da nagusiki, Txinak bideratuko dituen politika ekonomikoei esker eta finantza merkatuetako konfiantza handiagoaren ondorioz. Beste aldetik, ekonomia aurreratuen jarduerak moteltze arinari eutsiko dio AEBetako pizgarri fiskalaren eragina desagertuko den heinean. Munduko taula makroekonomikoaren arriskuek beheranzko joera dute. Faktore batzuek, hala nola merkataritza tentsioak gogortzeak, Erresuma Batua Europar Batasunetik irteteak eta finantzaziorako baldintzen balizko gogortzeak, gaur eguneko igurikimenak okerragotu ditzakete. Halere, goranzko ezusteak ere gerta daitezke, merkataritzako ezadostasunak konpontzen badira eta inbertitzaileen artean konfiantza areagotzen bada.

Espainiako BPGa Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: NDF.

EAE-KO EKONOMIA

Taula makroekonomikoa

Urte arteko aldakuntza tasak

	2017	2018	2018				2019
			I	II	III	IV	I
BPG	2,9	2,8	3,1	2,9	2,6	2,4	2,2
Familien kontsumoa	3,0	2,6	2,9	2,6	2,3	2,6	—
Administrazioaren kontsumoa	2,4	1,7	2,6	2,0	1,2	0,8	—
Kapital eraketa gordina	3,3	4,1	3,7	4,8	4,0	4,1	—
Barne eskaria	3,0	2,8	3,0	3,0	2,5	2,6	—
Esportazioak	4,7	3,0	6,7	2,9	2,2	0,3	—
Inportazioak	4,8	3,0	6,4	3,1	2,1	0,6	—
Lehen arloa	6,8	2,3	-3,0	0,8	-4,6	17,1	—
Industria	3,1	2,1	3,7	3,1	1,9	-0,2	—
Eraikuntza	3,8	4,3	2,7	4,1	4,8	5,6	—
Zerbitzuak	2,7	2,9	3,1	2,8	2,7	2,9	—
Balio erantsi gordina	2,9	2,8	3,1	2,9	2,6	2,4	—
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	2,8	2,7	3,1	2,8	2,6	2,5	—

Iturria: Eustat.

Aurreikuspenak. 2019ko martxoa

Urte arteko aldakuntza tasak

	2019				2019	2020
	I	II	III	IV		
BPG	2,1	2,3	2,2	2,2	2,2	2,0
Barneko azken kontsumoa	2,0	2,2	2,0	2,1	2,1	1,9
Familien kontsumoa	2,2	2,3	2,1	2,1	2,2	1,9
Administrazioaren kontsumoa	1,3	1,5	1,6	1,9	1,6	1,7
Kapital eraketa gordina	3,3	3,5	3,7	3,5	3,5	3,7
Barne eskariaren ekarpena	2,4	2,6	2,5	2,5	2,5	2,3
Kanpo eskariaren ekarpena	-0,3	-0,3	-0,2	-0,3	-0,3	-0,3
Lehen arloa	-9,9	-8,5	-9,9	-8,6	-9,2	-1,5
Industria	1,1	1,9	1,8	2,0	1,7	1,9
Eraikuntza	4,5	4,0	3,7	3,4	3,9	2,7
Zerbitzuak	2,6	2,6	2,5	2,3	2,5	2,2
Balio erantsi gordina	2,2	2,4	2,3	2,2	2,3	2,1
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	1,9	2,1	2,0	1,9	1,9	1,7
Enplegua	1,7	1,6	1,6	1,4	1,5	1,3

Iturria: Ogasun eta Ekonomia Saila: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

EAEko ekonomiarako aurreikuspenak

Urte arteko aldakuntza tasak

	BPG			BPG	
	2019	2020		2019	2020
BBVA	2,7	2,3	Laboral Kutxa	2,4	—
Funcas	2,7	—	Hispalink (BEGren aldakuntza)	2,1	2,0
Confebask	2,5	—	CEPREDE	1,9	1,9

Iturria: CEPREDE (2019ko martxoa), BBVA (2019ko otsaila), Confebask (2018ko abendua), Laboral Kutxa (2018ko abendua), Funcas (2018ko azaroa) eta Hispalink (2018ko abendua) .

ESPAINIAKO EKONOMIA

Taula makroekonomikoa

Urte arteko aldakuntza tasak

	2017	2018	2018				2019
			I	II	III	IV	I
BPG	3,0	2,6	2,9	2,6	2,5	2,3	2,4
Kontsumo pribatua	2,5	2,3	3,0	2,3	2,0	2,0	1,4
Kontsumo publikoa	1,9	2,1	2,2	2,0	2,2	2,2	2,0
Kapital finkoaren eraketa gordina	4,8	5,3	3,9	7,5	5,3	4,4	4,7
- Aktibo finko materialak	5,1	5,8	4,1	8,4	5,9	4,8	5,5
- Eraikuntzan	4,6	6,2	5,8	7,0	5,7	6,3	4,6
- Ekipamendu ondasunetan	6,0	5,4	1,9	10,6	6,3	2,8	6,7
- Jabetza intelektualaren produktuak	3,5	2,1	2,9	2,3	1,5	1,9	0,1
Nazio eskaria (ekarpena)	2,9	2,9	3,1	3,3	2,7	2,5	2,2
Esportazioak	5,2	2,3	3,8	2,6	1,7	1,0	-0,5
Inportazioak	5,6	3,5	4,8	5,1	2,3	1,7	-1,2

Iturria: INE.

Espainiako ekonomiarako hainbat aurreikuspen

Urte arteko aldakuntza tasak

	BPG			BPG	
	2019	2020		2019	2020
AFI	2,1	2,0	IEE	2,1	—
Axesor	2,3	1,9	Intermoney	2,1	1,8
BBVA	2,4	2,0	Repsol	2,2	2,1
Bankia	2,2	1,8	Santander	2,1	2,0
CaixaBank	2,1	2,0	Solchaga Recio & asociados	2,2	2,0
Espainiako Merkataritza Ganbera	2,0	1,9	BATEZ BESTE	2,2	1,9
Cemex	2,2	2,0	Gobernua (2019-04)	2,2	1,9
CEEM-URJC	2,1	1,9	Espainiako Bankua (2019-03)	2,2	1,9
CEPREDE-UAM	2,3	2,1	Europar Batzordea (2019-02)	2,1	1,9
CEOE	2,2	1,8	NDF (2019-04)	2,1	1,9
FUNCAS	2,1	1,8	ELGE (2018-11)	2,2	1,9
ICAE-UCM	2,2	1,9	Consensus Forecast (2019-04)	2,2	1,9

Iturria: FUNCAS, Ekonomia eta Ogasun Ministerioa, CEPREDE, ELGE, NDF, Europar Batzordea, The Economist eta Consensus Forecast. AFI: Analistas Financieros Internacionales; ICAE-UCM: Instituto Complutense de Análisis Económicos-Madrileko Unibertsitate Konplutentse; ICO: Instituto de Crédito Oficial; IEE: Instituto de Estudios Económicos; IFL-UC3M: Flores de Lemus Institutua-Carlos III Unibertsitatea Madril; NDF: Nazioarteko Diru Funtza; ELGE: Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundea.

NAZIOARTEKO EKONOMIA

Ekonomia hazkundera

Urte arteko aldakuntza tasak

	2017	2018	2018				2019
			I	II	III	IV	I
AEB	2,2	2,9	2,6	2,9	3,0	3,0	3,2
Txina	6,9	6,6	6,8	6,7	6,5	6,4	6,4
Japonia	1,9	0,8	1,4	1,4	0,2	0,3	—
Kanada	3,0	1,8	2,2	1,7	1,9	1,6	—
Europar Batasuna	2,4	2,0	2,4	2,2	1,8	1,5	1,5
Eurogunea	2,4	1,9	2,4	2,2	1,6	1,2	1,2
Alemania	2,2	1,4	2,1	2,0	1,2	0,6	—
Frantzia	2,2	1,5	2,2	1,7	1,4	1,0	1,1
Erresuma Batua	1,8	1,4	1,2	1,4	1,6	1,4	—
Italia	1,7	0,9	1,4	1,0	0,5	0,0	0,0
Herbehereak	2,9	2,7	3,2	3,0	2,3	2,0	—

Iturria: Eurostat, BEA eta ELGE.

Consensus Forecast. 2019ko apirila

Urte arteko aldakuntza tasa

	BPG		KPI		LANGABEZIA TASA	
	2019	2020	2019	2020	2019	2020
AEB	2,4	2,0	1,9	2,2	3,7	3,6
Japonia	0,6	0,5	0,6	1,0	2,4	2,4
Kanada	1,5	1,7	1,8	2,0	5,8	5,9
Europar Batasuna	1,3	1,5	1,5	1,7	—	—
Eurogunea	1,1	1,3	1,3	1,4	7,7	7,5
Alemania	0,8	1,5	1,4	1,6	4,9	4,8
Frantzia	1,3	1,3	1,2	1,4	8,6	8,4
Erresuma Batua	1,3	1,5	2,0	2,1	4,1	4,2
Italia	0,0	0,5	0,9	1,3	10,6	10,6
Espainia	2,2	1,9	1,2	1,5	—	—
Herbehereak	1,6	1,6	2,3	1,7	—	—

Iturria: Consensus Forecast.